

Santa Barbarako tabernaren ustiapenerako baldintzak aldatu dituzte

Urretxu Udalbatzarrean Eguneko Zentroaren eta etxeko laguntzari dagozkion plegu berriak onartu dituzte

M. LUKI

Herenegun osoko bilkura egin zuen Urretxuko Udalbatzak Landutako gaien artean, Santa Barbarako tabernaren ustiapena esleitzeko baldintzak ezar zuten dituzten pleguak onartu zituzten, orain arteko baldintzak aldatuz. Herenegungo bilkuran Eguneko Zentroaren eta etxeko laguntzaren esleipena egiteko plegu berriak ere onartu zituzten.

Santa Barbarako taberna Urretxuko Udalararena da, eta badira hilabete batzuk itxita dagoela. Iñaki Zabala alkatearen arabera plegu berriei jarraituz eskatzailearen «profesionaltasuna eta eskarmentua» baloratuko dute.

Plegu berriak ezartzen dituen baldintzen arabera, tabernan beharrezkoak diren eraberritze lanak eskatzailearen gain egongo dira. Udal ordezkariak lan horiek 300.000 euro inguruko kostua izango dutela aurreikusitako. Horren truke taberna 25 urtean esleitzeko eskubidea emango du Udalak. Pleguak EAE-ANV, EA eta EA Jren botoekin onartu ziren. EB-Aralarreko ordezkaria abstentiu egin zen.

Eguneko zentroa

Osoko bilkura Eguneko Zentroari eta etxeko laguntzari dagozkion pleguak ere onartu zituzten Ez, ordea, hainbesteko adostasunari ekin. Plegu horietan zer bitzuen ustiapena esleitzeko baldintzak ezartzen dira.

Gaur egun zerbitzu horiek Lan-kidetzaren enpresak kudeatzen ditu, baina Udalak beste lehian bat deitu nahi du langileen lan baldintzak hobetzeko eta enpresa ustiartzaileraren eta Udalaren arteko hartu-emanagardena goaizateko.

Pleguak EAE-ANV eta EAren aldeko bozkek onartu ziren EAJ abstentiu egin zen. Itziar Agirre EA Jren bozemailearen arabera etxeko laguntzagatik Udalak %15 bat gehiago ordaindu beharko du. «Gure ustetan kontratua amaitu arte itxaron beharko genuke, eta bitartean horretan enpresa hobeto kontrolatzen saiatu».

PSE-EEko zinegotzirik ez

Herenegungo osoko bilkuran ez zen PSE-EEko zinegotzirik izan, alderdiaren Elgoibarko egoitzan egindako elkarretaratzean zende-lako Gaur, Gema Zabaleta PSE-EEko zinegotziki prentsaurrekoa emango du, alderdiak Urretxun duen egoera azaltzeko.



Berrehun milagarren bisitariak

LEGAZPI Lenbur Fundazioak iragarri zuen bezala, 200.000 bisitariarentzat saria prestatuta zuten, eta asteburu honetan argazkian agertzen den Malagako bikoteak jaso du: Relais & Chateaux hotel katean, aste-

buru bat (bi gau gela bikoitzean, afariak eta gosariak barne). Lenburrek, bestetik, Urola Garaia eskualdeari buruzko informazioa eraman du Bartzelonan ospatu berri den Kataluniako turismo feria. LENBUR

Liburu Eguna eskoletan ere ospatuko dute gaur, ipuinen eta jolasen bitartez

Urretxu Gainzurin ipuinen irakurketak egingo dituzte, eta gero haurrek ipuin erraldoiak sortu beharko dituzte.

M. LUKI


Urretxuko ikastetxeek Liburuaren eta Jabego Intelektualaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute gaur. Gainzurin ipuin irakurketak egingo dituzte egun osoan zehar, eta Urretxu-Zumarraga Ikastolan Juul kanpainaren bitartez irakurzaletasuna sustatzen saiatuko dira ikasleen artean. Beste hainbat ekintzaren artean.

Gainzurin goizteko bederatzietan hasiko dira ipuinak irakurtzen. Txikienek (3, 4 eta 5 urtekoak) Txanogorritxo ipuina entzun ondoren ipuineri aldoia osatuko dute taldeka.

Lehenengo zikloko 1 eta 2 mailako ikasleek gauza berdina egin beharko dute. *Baba magikoak* ipuina entzun ondoren Bigarren zikloko ikasleek *Printzesa eta pirata* eta *Hankaoker* ipuinak entzun eta istorioa osatu beharko dituzte ondoren Hirugarren zikloko ipuin bateko itzi beharko dute.

Ikastolan, Juul

Ikastolako bost urteko ikasleek Juul kanpainari jarraitu gogokoak dituzten euskarazko liburuak aukeratu eta bozkatuko dituzte. Istorioko hautatzeaz gain, ilustratzailek gustukoena aukeratzeko parada ere izango dute.



Ikasturte honetan eskoletako ikasleak kontsumoa fiantzen ari dira. HITZA

Agenda 21eko foroan kontsumoaz hitz egingo dute ikasleekin

LEGAZPI Ohiko Agenda 21eko bilera ordua aurreratu egin dute, eta bihar 17:30ean hasiko da, udaletxeko aretoan.

M. LUKI

Agenda 21eko bilera dago bihar. Legazpin, arratsaldeko bostak eta erdian hasita udaletxeko aretoan Eskolako Agenda 21 antzen ari diren ikastetxeetako ordezkariak izango dira biharko bileran.

Legazpiko ikastetxeek urtero auzerterten dute garapen iraunkorrari dagozkion gaitzak, eta ikasturte honetan *Kontsumoa* izan da aukeraturiko gaia.

Urtero Agenda 21eko Foroaren bilera batean parte hartzen dute

ikasleek, hausnarketak azaltzeko Kontsumoari buruzko hausnarketaz gain, ikasleek euren proposamenak luzatuko dizkiete udal ordezkariari. Bide batez, ikasleek gaur egun inguruan hartutako konpromisoak aurkeztuko dituzte.

Udalaren erantzuna

Udalak ikasleen proposamenak martxan ipintzeko aukerak aztertuko ditu eta arrazoituko ditu ondoren. Ikasleei idatziz erantzuteko konpromisoa ere hartuko du Legazpiko Udalak biharko bileran, jasotako proposamenak buruz irizteko.

Ikasleek izango dira biharko bileraren protagonista, eta solasaldia euskaraz soilik egingo da. Bestetik, Agenda 21eko foroaren ohiko bilera ordua aurreratu egin dute: 17:30an hasiko da bihar.

Aldizkaria



Azaleko argazkia. El Salvador auzoko euskaldunak.

'Otamotz'

- **Gai nagusia.** Zumarragako El Salvador auzoko euskaldunak.
- **Zuek bai jakin!** Lourdes Idiakez Goiargi abesbatzako kidearekin elkarriketa.
- **Elkarriketa.** Joseba Etxezarreta eta Asier Azarola.
- **Izardi patsetan.** Urretxuko Aldiri kiroldegiko gimnasia erritmiko eskolako beteranok.
- **Boteprontoan.** Ino Ugarteburu.
- **Alea.** 136. zenbakia, 2008ko apirila. 1.500 aleko tirada.
- **Argitaratzailea.** Zintzo Mintzo euskalzaile elkarte (www.otamotz.com)

Laburrak

Goierriekin GR-9 errege bidearen laugarren etapa

URRET XU Goierri menditaldeak GR-9 probintzietako Errege Bidearen laugarren etapa antolatuko du datorren igandera. Bilbidea honako hau dute: Benta Haundi (Tolosa), Albiztur, Bidania, Iturburu eta Azpeitia. Izena Goierri elkartearen egoitzan eman daiteke (La-beaga kaleko 12 ean).

Bideo emanaldia eta bakarriketa Krak-en

URRET XU Gaur arratsaldeko zortzietan koadrilen arteko herri kirolen azken norgehiagokan ateratako argazkiekin osatutako ikus-entzunezko emango dute Urretxuko Krak tabernan. Etzi, Jon Plazaola urretxuarrak bere azken bakarriketa, *Back in flock*, kontatuko du 23:00etan, taberna berean.

Legazpiren jaiotza herri gisa, mintzagai bihar

LEGAZPI Legazpi: su nacimiento como entidad territorial hitzaldia eskainiko du bihar, arratsaldeko zazpietan, Maria Asuncion Urzainki Deustuko Unibertsitateko irakasle eta Geografian doktoreak. Hitzaldia Legazpiko kultur etxean izango da, eta Legazpi 400 Urtez Aske batzordeak antolatuko du.

Doinuaren udaberriko kontzertuak gaur eta bihar

LEGAZPI Doinua musika eskolako ikasleek udaberriko kontzertuak eskainiko dituzte gaur eta bihar. Legazpin, Latxartegin 18:00etan.